



## **INGURUMENENKO SAILA**

DEPARTAMENTO DE  
MEDIO AMBIENTE

### **2022. urteko EKITALDIAREN KUDEAKETA-MEMORIAREN LABURPENA 15 Jarduera-Egitasmo eta 134 Ekintza**

RESUMEN DE LA MEMORIA DE GESTIÓN  
DEL AÑO 2022  
15 Programas de Actuación y 134 Acciones

**2023ko martxoa**  
Marzo 2023



**2022. URTEKO  
KUDEAKETA-MEMORIAREN LABURPENA**

15 Jarduera-Egitasmo eta  
134 Ekintza

Laburpen honek jasotzen ditu 2022. urtean zehar Errenteriako Ingurumeneko Sailak kudeatu dituen ekintzak (burututakoak edo abian direnak), bai eta beste hainbat eragile publikorekin, edo pribatuekin elkar lankidetzan edo eta herriko Ingurumenaren zaintzan burutu edo finantzatu direnak ere.

Horrela, ekintza gehienak Udalak berak kudeatu baldin baditu ere, zenbait ekintza gauzatzekoan erakunde publiko batzuekin eta gizarte eragileekin izandako lankidetzan aipatuz, Ingurumenaren zeharkakotasuna indartuz: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, EEE, IDAE, IHOBE, URA Uraren Euskal Agentzia, Udalsarea 2030, Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentzia, Behemendi Landa Garapenerako Elkarte, Sanmarko eta Añarbe Mankomunitateak, Ingurumeneko Aholku-Batzordea (IAK), Udaleko beste udal Sail batzuk (Trafikoa, Hirigintza, Hiri-Mantenimendua, Kontratazioa eta Ondarea, Kultura, Hezkuntza, Kirola,...),...

Gure planeta bioaniztasun eta klima krisi garrantzitsu batetan sartuta egonik, Udala jakitun da Garapen Iraunkorrerako bidearen hasieran gaudela. Horrela, Ingurumeneko Sailak abian jartzen dituen ekintza guztien

**RESUMEN DE LA MEMORIA DE GESTIÓN  
DEL AÑO 2022**

15 Programas de Actuación y  
134 Acciones

En este resumen se incluyen las acciones que durante el año 2022 se han impulsado y gestionado (finalizadas o en marcha) desde el Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Errenteria, o en las que se ha intervenido ejecutando o financiando en acción colaborativa con otros agentes públicos o privados, o las relacionadas con la protección del Medio Ambiente del municipio.

Así, si bien la mayoría de las acciones se han gestionado directamente en el propio Ayuntamiento, en otras se ha apoyado y colaborado con diferentes Instituciones públicas y agentes sociales, reforzando la transversalidad del Medio Ambiente: Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, Diputación Foral de Gipuzkoa, Confederación Hidrográfica del Cantábrico, EVE, IDAE, IHOBE, Agencia Vasca del Agua URA, Udalsarea 2030, Agencia de Desarrollo Comarcal de Oarsoaldea, Asociación de Desarrollo Rural Behemendi, Mancomunidades de San Marko y de Añarbe, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK), Consejo Asesor de Medio Ambiente (CAMA), otros Departamentos municipales (Tráfico, Urbanismo, Mantenimiento Urbano, Contratación y Patrimonio, Cultura, Educación, Deportes,...),...

Estando nuestro planeta inmerso en una crisis de biodiversidad y climática de importantes proporciones, el Ayuntamiento es consciente de que se trata de seguir el camino hacia un Desarrollo Sostenible, pero en todas las acciones



helburua da zeharkakotasun eta iraunkortasun parametroen barruan lan egitea, horrek dakartzan hiru ardatzak kontuan izanda: ingurumena, gizartea eta ekonomia arloak. Politika hori pixkanaka Udal Sail guztietara zabaltzeko behar da; izan ere, hori zehazten du Udalak Tokiko Agenda 2030eko prozesua sustatzeko hartutako konpromisoak.

Ondorioz, Sail honen ardura da onartutako ingurumeneko planifikazioaren eta horietan txertatutako konpromisoen ezarpen mailaren jarraipena bermatzea, era berean nahikoa finantzazioa ere bilatu eta izatearren. Erronka berezia izango da Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren helburuen garapena, lurraldeari, Iraunkortasunari eta Ingurumenari lotuta.

Azpimarratu behar da 2022an, hurrengo hamarkadarako Klima eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana (KEIEP) onartu duela Udalak, eta LIFE KANTAUERIBAI Proiektu europarran parte hartzen hasi dela.

2022an ere ugariak izan dira Errenteriako Udalarentzat jardura ekonomikoa garatu duten ingurumeneko azpi-arloetara loturik dauden enpresa ezberdinak. Izan ere, jardura hori oso bestelakoa da lehenago izandako egoerekin alderatuta, non inbertsioak oso loturik zeuden eraikuntzako arloari. Eta hau egin ahal izan da (1) tokiko administrazioak ingurumeneko inbertsioari emandako bultzadari esker, hala nola (2) beste eragile publikoekin izandako lankidetzaren proaktiboari eta (3) udalez kanpoko baliabide ekonomikoak bilatzearen ondorioa.

Horrela, bada, beste urte batez frogaturik geratu da Ingurumenak, lerrotatuta dagoenean

empresak por el Departamento de Medio Ambiente se busca el trabajar bajo parámetros de transversalidad y de sostenibilidad, en sus tres ejes: ambiental, social y económico. Y esta política deberá ir extendiéndose paulatinamente a todos los Departamentos del Ayuntamiento. Así, lo determina el compromiso municipal de impulsar el proceso de la Agenda Local 2030.

En consecuencia, es responsabilidad de este Departamento garantizar el seguimiento del grado de cumplimiento de la planificación ambiental aprobada y de los compromisos incorporados, en relación también a la búsqueda y disposición de la financiación suficiente. Es un reto importante el desarrollo de las metas del Plan Estratégico Errenteria 2025 relativas al territorio, a la Sostenibilidad y al Medio Ambiente.

Se puede resaltar que en el 2022 se ha aprobado el Plan de Acción a favor del Clima y la Energía Sostenible (PACES) para la presente década, y que se ha iniciado la participación en el Proyecto europeo LIFE KANTAUERIBAI.

También en 2022 han sido numerosas las empresas pertenecientes a los diferentes subsectores ambientales que han desarrollado su actividad económica para el Ayuntamiento de Errenteria, una actividad diferenciada de escenarios anteriores donde las inversiones se hallaban mayoritariamente asociadas al sector de la construcción. Y esto ha sido posible gracias a (1) impulso inversor ambiental de la administración local, (2) a la colaboración proactiva con otros agentes públicos, y (3) a la búsqueda de recursos económicos extramunicipales.

Así, otro año más queda demostrado que el Medio Ambiente, alineado en un escenario de



nahikotasuna eta energia eta lehen gaien deshazkundearekin eta herritarren bizitza eta ingurumen (energia, ura, airea, lurra, bioaniztasuna) kalitatea aldatzeko eszenatoki batekin, osatzen duela etorkizuna duen

jarduera ekonomikoen haztegia, eta aldi berean lanpostuak sortuko dituena.

Hauexek ditugu 2022an kontratatu edo Udalarekin lankidetzan aritu diren enpresak eta gizarte eragileak Ingurumeneko alorrean beren lana eginez:

suficiencia y decrecimiento del consumo de energía y de materiales, y de mejora de la calidad de vida de la ciudadanía y ambiental (energía, agua, aire, suelo, biodiversidad), constituye un nicho de actividad económica con futuro, y a su vez generador de puestos de trabajo.

Estas son las empresas y agentes sociales que en 2022 han sido contratados o han acompañado al Ayuntamiento de Errenteria para ejercer su trabajo en materia de Medio Ambiente:

ENPRESAK:

- Juan Jaime Alquiza
- Mikel Loiarte
- Berdabio Basogintza, SL
- Jorge Sánchez
- Easo Motor, SA
- Girodservices, SL
- Luis Otaño, SL
- Inguru 21, SL (Izadi 21)
- Ekogarapen, SL
- Limpiezas Joxean, SL
- Construcciones Alzola, SL
- Excavaciones y Transportes Orsa, SL
- Conchi Uriarte Seminario
- Cig Tailerrak, SL
- Tesec Señalizaciones, SL
- Perforaciones y Derivados, SL
- Dorlet, SAU
- ID Waste, SL
- Blipvert, SL



- Moheda&Rañal, SL
- Vermican Soluciones de Compostaje, SL
- Alqui-Envas, SL
- Pasaiplas Tecnológico, SL
- Kutxagestión Zerbitzuak, SLU
- Limia&Martin, SL
- Mugak, SL
- Kontxi Uriarte
- Mugatek, SL
- Galarregi, SL
- Artelatz Ingurumen Zerbitzuak, SL
- K1 Ekopaisaia, SLL
- Jose Antonio Arruti Irigoyen
- Pello Bengoetxea
- Kromosoma Tailerra
- Esaten Comunicación y Publicidad, SLU
- Astidiseinua
- Amarko, SL
- Tempografix
- Dixidua
- Eukene Piquer Lasa y Otros, CB
- Protección y Tecnología de la Madera, SL
- CIMASUB
- Luberri Museo Geologikoa
- Desma Estudios Ambientales, SL
- Galemys, SL
- Elhuyar Fundazioa
- Sistemes Avançats d'Energia Solar Tèrmica, SCCL.
- Leycolan, S.A.L.



- Ekain Taldea, S.L.
- Acimuth, S.L.
- RSM Gassó Cimne Energy, S.L.
- Aritz López Aranburu
- Goiener Elkartea
- Montajes eléctricos Igoan, S.L.
- Abaila Koop. Elk.
- Arrese-Igor Ingeniería, S.L.
- Proyectos Ingeniería Acústica, S.L.
- Farapi Koop. Elk.
- Ingutek Koop Elk. Txikia
- Julen Larruskain Oiaga

GIZARTE ERAGILEAK / AGENTES SOCIALES:

- Aranzadi Zientzi Elkartea
- Eguzki Talde Ekologista eta Antinuklearra
- Gurrpilartea Elkartea
- Pausu Media
- Aizpitarte Talde Espeleologikoa Elkartea

Bestalde, 2022an Ingurumeneko Sailak bideratutako giza baliabideak ondokoak izan dira, zinegotzi-ordezkariek zuzendu dituelarik: ingurumeneko goi mailako teknikaria, iraunkortasunerako goi mailako teknikaria, lege-aholkularia, basozaina, bi administrari eta bi administrari-laguntzaileak.

Por otro lado, los recursos humanos destinados al Departamento de Medio Ambiente en 2022 han sido, dirigidos por el concejal-delegado: el técnico superior de medio ambiente, el técnico superior de sostenibilidad, el/la asesor jurídico, el guardabosques, dos administrativas y dos auxiliar-administrativas.



**15 JARDUERA-EGITASMO:**

1. Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka
2. Mugikortasun Iraunkorra
3. Paisaiaren babesa
4. Iraunkortasuna, fiskalitate berdea eta Tokiko Agenda 2030eko politikak
5. Bioaniztasuna eta Natur eta Kultur Ondarearen zaintza
6. Uraren babesa
7. Kutsaduraren prebentzioa eta gutxipena
8. Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa
9. Landa Garapena
10. Sentsibilizazioa eta informazioa, Ingurumeneko Heziketa eta komunikazioko kanpaina publikoak
11. Erabilera publikoa eta bere azpiegiturak kudeatzea
12. Lege-kudeaketa, Lankidetzeta-Hitzarmenak eta Mozioak
13. Emakida administratiboen jarraipena
14. Erakundeetako partaidetza eta lan trabakuntza
15. Herri-Erakundeei dirulaguntzak eskatzearen tramitazioa

**15 PROGRAMAS DE ACTUACION:**

1. Lucha contra el cambio climático
2. Movilidad Sostenible
3. Protección del paisaje
4. Políticas de Sostenibilidad, fiscalidad verde y Agenda Local 2030
5. Conservación de la Biodiversidad y del Patrimonio Natural y Cultural
6. Protección del agua
7. Prevención y mitigación de la contaminación
8. Prevención y gestión de residuos
9. Desarrollo Rural
10. Campañas públicas de sensibilización, información, Educación Ambiental y comunicación
11. Gestión del uso público y sus infraestructuras
12. Gestión normativa, Convenios de Colaboración y Mociones
13. Seguimiento de concesiones administrativas
14. Participación institucional y formación laboral
15. Tramitación de solicitud de subvenciones a instituciones públicas

*Errenteria, 2023ko martxoaren 24an  
Errenteria, a 24 de marzo de 2023*

*José Manuel Ferradás, Ingurumeneko Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente  
Iñaki Azkarate, Goi Mailako Ingurumen-Teknikaria / Técnico Superior de Medio Ambiente  
Niko Bengoetxea, Goi Mailako Iraunkortasun-Teknikaria / Técnico Superior de Sostenibilidad  
Vicente Castiella (Arantza Arrazola), Lege-Aholkularia / Asesor Jurídico  
Juanmari Juanarena, Basozaina / Guardabosques  
Ana Irastorza, Hirigintza eta Ingurumeneko Administraria / Administrativa  
Iratxe Novo, Hirigintza eta Ingurumeneko Administraria / Administrativa  
Gurenda Erkizia, Hirigintza eta Ingurumeneko Administrari-Laguntzailea / Auxiliar Administrativa  
Rakel Laboa, Hirigintza eta Ingurumeneko Administrari-Laguntzailea / Auxiliar Administrativa*



**INGURUMENENKO SAILA**  
**2022. URTEKO KUDEAKETA-MEMORIAREN LABURPENA**  
**15 Jarduera-Egitasmo eta 134 Ekintza**

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
RESUMEN DE LA MEMORIA DE GESTIÓN DEL AÑO 2022  
15 Programas de Actuación y 134 Acciones

**1. JARDUERA PROGRAMA: KLIMA-  
ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA:**

**PROGRAMA DE ACTUACION 1: LUCHA  
CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO:**

**Politika energetikoa eta plangintza:**

**1. EKINTZA:**

Errenteriako Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Planaren (KEIEP) onarpena, Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunaren esparruan.

**Política energética y planificación:**

**ACCION 1:**

Aprobación del Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible (PACES) de Errenteria, en el marco del Pacto de los Alcaldes y Alcaldesas por el Clima y la Energía.

**Energia eraginkortasuna eta aurrezpena:**

**2. EKINTZA:**

Errenteriako Udalaren energia kontsumo eta horniduren kudeaketa egiteko "on line" aplikazio informatiko baten erabilera egiten jarraitu da, aplikazio horrek, elektrizitate kontsumoen monitorizazio modulua barne hartzen du.

**Eficiencia y ahorro energéticos:**

**ACCION 2:**

Se ha seguido haciendo uso de la aplicación informática "on line" para la gestión de los consumos y suministros energéticos de los puntos de consumo del Ayuntamiento de Errenteria. Esa aplicación incluye el módulo de monitorización de consumos eléctricos.

**3. EKINTZA:**

Argiterian energia eraginkortasuna. Hainbat udal eraikinetan eta Fanderia Futbol zelaian LED-etara argiteria ordezkatzea. 1166 luminarien aldaketa honako tokietan: Cristobal Gamon, Gabierrota Ludoteka, Bake epaitegia, Koldo Mitxelena Biteri, Koldo Mitxelena Markola, Agustinetako jubilatua, Merkatuzar, Fanderia Futbol Zelaia eta Pio Baroja eraikinean. Aurrekontua: 306.270,24 €.

**ACCION 3:**

Eficiencia energética del alumbrado. Se ha licitado la sustitución a LEDs de la iluminación de varios edificios municipales y el campo de fútbol de Fanderia. Sustitución de 1.166 luminarias de Cristobal Gamon, Ludoteka Gabierrota, Juzgado de Paz, Koldo Mitxelena Biteri, Koldo Mitxelena Markola, Jubilados Agustinas, Merkatuzar, campo de fútbol de Fanderia y edificio Pio Baroja. Presupuesto: 306.270,24 €.

**4. EKINTZA:**

8 udal eraikinetan energia auditoriak egiteko lizitazioa egitea.

**ACCION 4:**

Licitación de la realización de auditorías energéticas en 8 edificios municipales.

**5. EKINTZA:**

**ACCION 5:**





Argiteria publikoko 30 koadroen energia auditoriak egiteko lizitazioa egitea. Guztira 1873 luminaria.

Licitación de la realización de auditorías energéticas en 30 cuadros de alumbrado público. Total luminarias: 1873.

**Energia berriztagarriak:**

**Energías renovables:**

6. EKINTZA:

ACCION 6:

Udal eraikinetan instalazio fotovoltaikoak ezartzeko (340 KWp) hornidura kontratua lizitatzea idaztea, honako eraikin hauetarako: Udaltzaingoa, Cristobal Gamon Eskola, "Agustina Otaola Raketista Profesionala" frontoia, Agustinak Ekintzaileen Zentroa eta Bizarain Beraungo instalazioaren handitzea.

Licitación del contrato de suministros para la implantación de instalaciones fotovoltaicas (340 KWp) en edificios municipales, para los edificios: Policía Local, Escuela Cristobal Gamon, Frontón "Agustina Otaola Raketista Profesionala", Agustinak Ekintzaileen Zentroa y ampliación de Bizarain Beraun.

**Eraikinen kalifikazio energetikoa:**

**Calificación energética de edificios:**

7. EKINTZA:

ACCION 7:

8 Udal eraikinen energia auditoriak egiteko kontratua lizitatu da. Kontratu horren barne, Udalaren 2 eraikinen energia kalifikazio ziurtagiriak egingo dira.

Se ha licitado la redacción de auditorías energéticas de 8 edificios municipales. Dentro de ese contrato, se deben elaborar los certificados energéticos de dos edificios municipales.

**Klima aldaketaren aurrean egokitzapena:**

**Adaptación frente al cambio climático:**

8. EKINTZA:

ACCION 8:

Errenteriako Klima eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Planaren (KEIEP) zenbait ekintza garatzea, urteko egitasmo ezberdinetan sartuta daudelarik.

Desarrollo de acciones de diferentes programas anuales incluidas en el Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible de Errenteria (PACES).

**2. JARDUERA PROGRAMA:  
MUGIKORTASUN IRAUNKORRA:**

**PROGRAMA DE ACTUACIÓN 2:  
MOVILIDAD SOSTENIBLE:**

9. EKINTZA:

ACCION 9:

"Miguel Hernández Pasealekua eta Fanderia inguruko bigorriaren seinalizazio horizontala izeneko Proiektua"-ren idazketa eta gauzatzea.

Redacción y ejecución del "Proyecto de señalización horizontal en el bidegorri del Paseo Miguel Hernández y en la zona de Fanderia".

10. EKINTZA:

ACCION 10:

"Errenteriako Udaleko HAPOko 12. Area: Pontikan, Pontika eta Igantzi lotzen dituen bidegorrian egoera hobetzeko behar diren lanen Proiektua"-ren idazketa eta gauzatzea.

Redacción y ejecución del "Proyecto para obras de mejora en el bidegorri que une el barrio de Pontika con el de Igantzi en el Area 12: Pontika del PGOU de Errenteria".

11. EKINTZA:

ACCION 11:



Errenteriako Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (HMJP) idazteko laguntza teknikoaren kontratua esleitzea. Hirigintza Saila.

Adjudicación del contrato de "Asistencia técnica para la redacción del Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS) de Errenteria". Departamento de Urbanismo.

12. EKINTZA:

"Errenteriako Irisgarritasun Planaren Eguneraketa" izeneko dokumentuaren idazketa. Hirigintza Saila.

ACCION 12:

Redacción del documento denominado "Actualización del Plan de Accesibilidad de Errenteria". Departamento de Urbanismo.

13. EKINTZA:

Bigarren eskuko txirrindaren VI. Merkatua egitea Gamon Zumardian.

ACCION 13:

Celebración del VIº Mercado de la bicicleta de segunda mano en la Alameda de Gamon.

14. EKINTZA:

Txirrindentzako aparkalekuak hornitzea (24 plaza).

ACCION 14:

Adquisición de parkings de bicicletas (24 plazas).

**3. JARDUERA PROGRAMA: PAISAIAREN BABESA:**

**PROGRAMA DE ACTUACIÓN 3: PROTECCION DEL PAISAJE:**

15. EKINTZA:

**Errenteriako Oiartzun ibaiko Paisaiaren Ekintza Planaren (2015) garapenerako ekintzak: PD.8.29** Fanderiako errotako ibaiko interpretazio guneko (Ibaiaren Etxea) bisitarien arreta eta instalazioen artapena-ezarpena. **PD.8.29** Fanderiako errotako ostalaritza-kudeatzea. **PD.8.30** Villa María Luisa lorategi botanikoari balioa ematea. **PD.9.34.** Biaduktuen azpiko espazioaren paisaia leheneratzea. **PD.11.40.** Saneamendu-sarea osatzea eta isuri kutsatzaileak saihestea. **PD.11.42** Oiartzun ibaia eta Lintzirin, Tolarieta, Masti eta Epentza erreken bi garbiketa.

ACCION 15:

**Acciones de desarrollo del Plan de Acción del Paisaje del entorno del río Oiartzun en Errenteria (2015): PD.8.29** Servicio de Atención a Visitantes y de Conservación del equipamiento en el Centro de Interpretación Fluvial del Molino de Fanderia (Ibaiaren Etxea). **PD.8.29** Gestión hostelera del molino de Fanderia. **PD.8.30** Puesta en valor del jardín botánico Villa María Luisa. **PD.9.34** Regeneración paisajística del espacio bajo los viaductos. **PD.11.40.** Completar la red de saneamiento y evitar los vertidos contaminantes. **PD.11.42** Dos limpiezas de RSU en el río Oiartzun y regatas subsidiarias: Lintzirin, Tolarieta, Masti y Epentza.

16. EKINTZA:

"Lorategi geologikoa, Oiartzun ibaiaren arroko harriak" interpretazio-eremuaren ezarpenaren zehaztapena eta koordinazioa kontratatzea.

ACCION 16:

Contratación de la definición y coordinación de la implementación del área interpretativa "Jardín Geológico, Rocas de la cuenca del río Oiartzun".



<b>4. JARDUERA IRAUNKORTASUN FISKALITATEA ETA 2030:</b>	<b>PROGRAMA: POLITIKAK, TOKIKO AGENDA</b>	<b>PROGRAMA DE ACTUACIÓN 4: POLÍTICAS DE SOSTENIBILIDAD, FISCALIDAD Y AGENDA LOCAL 2030:</b>
---	---	--

**Iraunkortasuna:**

17. EKINTZA:

20.000-100.000 biztanle bitarteko udalerrietako iraunkortasun-politikei buruzko Europako ingurumen-sariaren, "EB Green Capital & Green Leaf 2024", deialdian aurkeztea.

**Tokiko Agenda 2030:**

18. EKINTZA:

"Laguntza teknikoa garatzea, Errenteriako Iraunkortasun prozesuaren jarraipenerako: Tokiko Agenda 2030 eta Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren (IAK) idazkaritza teknikoa".

19. EKINTZA:

EMugi aplikazio informatikoaren jarraipena, Tokiko Agenda 2030eko Ekintza Planaren Udalaren betetze-maila kontrolatzeko.

**Eskola-Agenda 2030:**

20. EKINTZA:

Errenteriako Eskola Agenda 2030 prozesua dinamizatzeko laguntza teknikoa garatzea hurrengo ikasturteetan:

- 2021/2022: "15. GJH: Ekosistema lurarren bizitza: larreak, zelaiak eta landare itsutasuna" (4.800 ikasle, irakasle eta familiak, 8 ikastetxe eta ziklo): Bizarain, Cristobal Gamon, Koldo Mitxelena Institutua, Egiluze-Gurutzeko Alabak, Orereta Ikastola, Telleri-Alde, eta Don Bosco.

- 2022/2023: "7. GJH: Energia, bizitzaren motorra" (4.800 ikasle, irakasle eta familiak, 8 ikastetxe eta ziklo): Bizarain, Cristobal Gamon, Koldo Mitxelena Institutua, Egiluze-Gurutzeko Alabak, Orereta Ikastola, Telleri-Alde, eta Don Bosco.

**Ingurumeneko Herri-Partaidetza:**

**Sostenibildad:**

ACCION 17:

Presentación de convocatoria para el premio ambiental comunitario "UE Green Capital & Green Leaf 2024", sobre políticas de sostenibilidad en municipios de entre 20.000 y 100.000 habitantes.

**Agenda Local 2030:**

ACCION 18:

Desarrollo de la "Asistencia técnica para el seguimiento del proceso de Sostenibilidad de Errenteria: Agenda Local 2030 y secretaria técnica del Consejo Asesor de Medio Ambiente (CAMA)".

ACCION 19:

Seguimiento de la aplicación informática eMugi para el control del grado de cumplimiento municipal del Plan de Acción de la Agenda Local 2030.

**Agenda Escolar 2030:**

ACCIÓN 20:

Desarrollo de la asistencia técnica para la Agenda 2030 Escolar de Errenteria en los cursos:

- 2021/2022: "15º ODS: Vida de los ecosistemas terrestres: prados, pastos e invisibilidad de las plantas" (4.800 escolares, 8 centros y ciclos): Bizarain, Cristobal Gamon, Instituto Koldo Mitxelena, Egiluze-Hijas de la Cruz, Orereta Ikastola, Telleri-Alde, y Don Bosco.

- 2022/2023: "7º ODS: "Energía, motor de la vida" (4.800 escolares, 8 centros y ciclos): Bizarain, Cristobal Gamon, Instituto Koldo Mitxelena, Egiluze-Hijas de la Cruz, Orereta Ikastola, Telleri-Alde, y Don Bosco.

**Participación Pública ambiental:**



21. EKINTZA:

Ingurumeneko Aholku Kontseilua (IAK) dinamizatzea.

ACCIÓN 21:

Dinamización del Consejo Asesor de Medio Ambiente (CAMA).

22. EKINTZA:

Ingurumeneko Aholku-Kontseilua (IAK): 3 bilera.

ACCION 22:

Consejo Asesor de Medio Ambiente (CAMA): 3 reuniones.

23. EKINTZA:

Hondakinen Jarraipenerako Batzordea: 2 bilera.

ACCION 23:

Comisión de Seguimiento de Residuos: 2 reuniones.

24. EKINTZA:

Herri-partaidetzako 15 saio Errenteriako Energia Komunitatea sortzeko lantaldearen eta hitzaldietarako.

ACCION 24:

15 sesiones de participación ciudadana, del grupo de trabajo, así como charlas públicas, para crear la Comunidad Energética de Errenteria.

**Gizarte eragileei diru-laguntzak:**

**Subvenciones a agentes sociales:**

25. EKINTZA:

2022ko deialdia irabazi asmorik gabeko erakundeei eta elkarteei, betiere Iraunkortasun, Ingurumen eta Landa Garapen alorreko jarduerak burutzen badituzte Errenteriako udalerrian: 10.000 euro bost gizarte eragileentzat: Aranzadi Zientzi Elkarte, Eguzki Talde Ekologista, Gorpilarte Elkarte, Pausu Media GKE eta Aizpitarte Talde Espeleologikoa Elkarte.

ACCIÓN 25:

Convocatoria de 2022 para las subvenciones a entidades y asociaciones sin ánimo de lucro, que desarrollan actividades en materia de Sostenibilidad, Medio Ambiente y Desarrollo Rural en el municipio de Errenteria: 10.000 euros para cinco agentes sociales: Aranzadi Zientzi Elkarte, Eguzki Talde Ekologista, Gorpilarte Elkarte, Pausu Media GKE y Aizpitarte Talde Espeleologikoa Elkarte.

**5. JARDUERA PROGRAMA: BIOANIZTASUNA ETA NATUR ETA KULTUR ONDAREAREN ZAINZA:**

**PROGRAMA DE ACTUACIÓN 5: CONSERVACIÓN DE LA BIODIVERSIDAD Y DEL PATRIMONIO NATURAL Y CULTURAL:**

26. EKINTZA:

Ikerketa idaztea: "Errenteriako Añarbeko Erreserba-Eremuko ezaugarritze botanikoa". Aranzadi Zientzi Elkarteari kontratatua.

ACCION 26:

Estudio denominado "Caracterización botánica de la Reserva de Añarbe de Errenteria". Encargado a la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

27. EKINTZA:

Ikerketa idaztea: "Añarbeko Baso Erreserbako onddoen bioaniztasuna". Aranzadi Zientzi Elkartek egina eta Udalak diruz lagunduta.

ACCION 27:

Estudio denominado "Biodiversidad fúngica de la Zona de Reserva de Añarbe". Redactado por la Sociedad de Ciencias Aranzadi y subvencionado por el



Ayuntamiento.

28. EKINTZA:

Oiartzun ibaia, Arramendi eta Lau Haizeta Parkean saguzarrentzako 50 kabi kutxen erabileraren jarraipena, haien habitata hobetzeko ekimen gisa.

ACCION 28:

Seguimiento de 50 cajas-nidos instalados para murciélagos en el río Oiartzun, Arramendi y Parque de Lau Haizeta, como medida para mejorar su hábitat.

29. EKINTZA:

Aizpitarteko udal leizeetan saguzar mehatxatuen laginketa Naturtzaindia Elkartearen bidez (zazpi espezie): ferra-saguzar handia, ferra-saguzar txikia, ferra-saguzar mediterranea, Schreibers saguzarra, baratze-saguzarra, eta *Plecotus* eta *Myotis* generoko zehaztu gabeko bi saguzar.

ACCION 29:

Muestreo de los murciélagos amenazados de las cuevas de Aizpitarte, mediante la Asociación Naturtzaindia (siete especies): murciélago grande de herradura, murciélago pequeño de herradura, murciélago mediterraneo de herradura, murciélago de cueva, murciélago hortelano, y dos indeterminados de los géneros *Plecotus* y *Myotis*.

30. EKINTZA:

"Urtean zeharreko saguzarren erabilera Aizpitarte IV leizean (Orereta, Gipuzkoa)" izeneko EHUKo grado bukaerako lana. Jon Cristobalena Vicentek biologoak idatzia.

ACCION 30:

Trabajo de fin de grado de la UPV/EHU: "El uso por murciélagos a lo largo del año en la cueva de Aizpitarte IV, en Orereta (Gipuzkoa)". Redactado por el biólogo Jon Cristobalena Vicente.

31. EKINTZA:

Errenteriako konektibitate ekologikoa eta azpiegitura berdeari buruzko azterketa bat idaztea.

ACCION 31:

Redacción de Estudio sobre conectividad ecológica e infraestructura verde de Errenteria.

32. EKINTZA:

LIFE21-NAT-ES-LIFE KANTAUERIBAI Proiektu europarran bazkide onuradun gisa sartzea: Bizkaiko Golkoko ibai-ekosistemen lehengoratzeko ekologikoa, Ereñotzuko (Hernani) "Renteria zentral hidroelektriko" zaharreko presaren eraispena.

ACCION 32:

Incorporación como socio beneficiario al Proyecto comunitario LIFE21-NAT-ES-LIFE KANTAUERIBAI: Restauración ecológica de ecosistemas fluviales del Golfo de Bizkaia, derribo de la presa de la antigua "Central hidroeléctrica Renteria", en Ereñotzu (Hernani).

33. EKINTZA:

Añarbe HOMeko Malbazar, Berrozpin eta Ezpalaugin hesi naturalen birgaipen ekologikoaren gauzapena. Aiako Harriko PN eta KBERen erakunde kudeatzailearekin lankidetzan.

ACCION 33:

Restauración ecológica de setos forestales en Malbazar, Berrozpin y Ezpalaugin (MUP Añarbe). En coordinación con el órgano gestor del PN y ZEC de Aiako Harria.

34. EKINTZA:

Fanderia auzoko Oiartzun ibaiaren ezker eta eskubiko ertzeetan anfibioen faunarentzako

ACCION 34:

Construcción de tres humedales para la fauna de anfibios en la márgenes izquierda



hiru hezegune eraikitzea.

y derecha del rio Oiartzun en Fandería.

35. EKINTZA:

ACCION 35:

Pagotzarte, Sanmarko, Aldura eta Igantziko (berria) anfibioen urmaelen handitzea, birgaipena eta berria eraikitzea. GFA, Aranzadi Zientzi Elkarte eta Udalaren esku.

Ampliación, restauración y creación de balsas de anfibios de Pagotzarte, Sanmarko, Aldura, e Igantzi (nueva). Coordinadas entre la DFG, Sociedad de Ciencias Aranzadi y el Ayuntamiento.

36. EKINTZA:

ACCION 36:

"2022an zehar Errenteriako Udal Baso Ondarearen mendietan basolanak, eta bioaniztasuna eta erabilera publikoaren kontserbazio-lanak" kontratatu eta idaztea.

Contratación y ejecución de los "Trabajos forestales, de conservación de la biodiversidad y de uso público en montes pertenecientes al Patrimonio Forestal Municipal de Errenteria durante 2022".

37. EKINTZA:

ACCION 37:

**BASOZAINZTA-ZERBITZUA:** udalerriko lurraldea zaintzea eta patruilatzea landa-eremuan:

**SERVICIO DE GUARDABOSQUES:** Vigilancia y patrulla del territorio municipal adscrito al suelo de carácter rural:

Basoak kudeatzea, habitatak eta paisaia naturalak eta bioaniztasuna, ehiza, ingurumenari egindako kalteak, udal ondarea zaintzea, udal mugarrak jartzea, isurtzeak, estazio eta monumentu megalitikoak, aisialdi eremuak, baso-suteei aurrea hartzea, obrak eta legez kanpoko ekintzak,...

Gestión forestal, hábitats y paisajes naturales y biodiversidad, caza, delincuencia ambiental y urbanística, vigilancia del patrimonio municipal, amojonamientos municipales, vertidos, estaciones y monumentos megalíticos, áreas recreativas, prevención de incendios forestales, obras y actividades ilegales,...

LEHEN SEKTOREKO ERABILERARAKO ZONA (LSEZ):

ZONA DE USO SECTOR PRIMARIO (ZUP):

**Babestutako lurzoru urbanizaezina**

Aiako Harriko Natur Interes Bereziko Area..... LSEZ/1  
Lau Haizetako Paisaia eta Kultur Intereseko Area.....LSEZ/2  
Listorretako Aisialdi Intereseko Area .....LSEZ/3

**Suelo no urbanizable protegido**

Área Especial Interés naturalístico de Aiako Harria..... ZUP/1  
Área Interés Paisajístico y Cultural de Lau Haizeta.....ZUP/2  
Área de Interés recreativo de Listorreta..... ZUP/3

**Lurzoru urbanizaezina arrunta**

Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko zona.....LSEZ/4  
Erabilera Definiturik Gabeko Zona Babestua.....LSEZ/5  
Azaleko Urak Babestutako Zona..... LSEZ/6  
Lau Haizetako landa-lur Zona Arrunta.....LSEZ/8

**Suelo no urbanizable común**

Zona Agroganadera y de Campiña.....ZUP/4  
Zona Protegida, sin vocación de uso definido.....ZUP/5  
Zona de Protección de Aguas Superficiales.....ZUP/6  
Zona Rural Común de Lau Haizeta.....ZUP/8

38. EKINTZA:

ACCION 38:

Flora exotikoaren espezie inbaditzaileen ezabaketa antolatua Lau Haizeta Parkea, Aiako Harriko PN eta KBeko baso habitatetan: panpako belarra, *Buddleia davidii*, sasi-akazia, *Fallopia japonica*, platanondoa eta *Crococsmia*. GFA eta Behemendi LGEaren elkarlanaz.

Trabajos de erradicación planificada de especies invasoras de la flora exótica en hábitats forestales y fluviales del PN y ZEC de Aiako Harria y Parque de Lau Haizeta: plumero de la pampa, *Buddleia davidii*, falsa acacia, *Fallopia japonica*, platanero y *Crococsmia*. En colaboración con la DFG y ADR Behemendi.



39. EKINTZA:

Fauna exotikoko espezie inbaditzaileak ezabatzeke planifikaturiko lanak: foru protokoloa aplikatu da liztor beltzaren aurka, GFAk koordinatua. Hiri Mantenimenduko Saila.

ACCION 39:

Trabajos de erradicación planificada de especies invasoras de la fauna exótica: aplicación del protocolo foral de lucha contra la avispa asiática, coordinado con la DFG. Departamento de Mantenimiento Urbano.

**6. JARDUERA PROGRAMA: URAREN BABESA:**

**PROGRAMA DE ACTUACION 6: PROTECCION DEL AGUA:**

40. EKINTZA:

Oiartzun ibaia eta Lintzirin, Tolarieta, Masti eta Epentza erreketako hondakinen bi garbiketakanpaina, Behemendi LGeren lankidetzaz.

ACCION 40:

Dos campañas de limpieza de RSU del río Oiartzun y regatas Lintzirin, Tolarieta, Masti y Epentza, en colaboración con la ADR Behemendi.

41. EKINTZA:

Oiartzun ibaiko barandetan plaka zulatuak jartzea, plastikoak eta HHSak itsas ingurunera ez isurtzeko.

ACCION 41:

Instalación de placas perforadas en barandillas del río Oiartzun, para prevenir el vertido de plásticos y RSU al medio marino.

42. EKINTZA:

Isurketen bideraketa lanak Iztietan izenekoen gauzatzea. Udal Hiri Mantenimenduko Sailaren ardura.

ACCION 42:

Ejecución de los trabajos de canalización de vertidos en Iztietia. Responsabilidad del Departamento de Mantenimiento Urbano.

43. EKINTZA:

Saneamendu sarea berritzea Gaztaino B aldapan izeneko obrak gauzatzea. Udal Hiri Mantenimenduko Sailaren ardura.

ACCION 43:

Ejecución de las obras de renovación de la red de saneamiento en la cuesta de Gaztaino B. Responsabilidad del Departamento de Mantenimiento Urbano.

44. EKINTZA:

"Iztietako isurketak ekiditeko obrak - Nafarroa etorbideko blokea" izeneko proiektua idaztea. Udal Hiri Mantenimenduko Sailaren ardura.

ACCION 44:

Redacción del proyecto "Obras para evitar vertidos en Iztietia - Bloque de la Avenida de Navarra". Responsabilidad del Departamento de Mantenimiento Urbano.

45. EKINTZA:

Beraun kalea 5 zenbakian saneamendu sarearen desbideraketa obrak gauzatzea. Udal Hiri Mantenimenduko Sailaren ardura.

ACCION 45:

Ejecución de las obras de desvío de la red de saneamiento en Beraun, 5. Responsabilidad del Departamento de Mantenimiento Urbano.

46. EKINTZA:

Errenteriako Erdiguneko isurketak ekiditeko

ACCION 46:

Ejecución de obras para evitar vertidos en el



obrak gauzatzea. Udal Hiri Mantenimenduko Sailaren ardura.

Centro de Errenteria. Responsabilidad del Departamento de Mantenimiento Urbano.

47. EKINTZA:

ACCION 47:

“Errenteriako erdigunean saneamendua hobetzeko lanen 3. fasea” izeneko proiektua idaztea. Udal Hiri Mantenimenduko Sailaren ardura.

Redacción del proyecto denominado “3ª fase de las obras de mejora del saneamiento en el centro de Errenteria”. Departamento de Mantenimiento Urbano.

48. EKINTZA:

ACCION 48:

Añarbeko urtegiaren potentzial ekologikoaren Jarraipen Plana idaztea, Europar Batasunaren 2000/60 Zuzentarauaren jarraibideen arabera. 2021. urteko txostena. Añarbeko Mankomunitatea.

Redacción del Plan de Seguimiento del potencial ecológico del embalse de Añarbe según las directrices de la Directiva 2000/60 de la UE. informe anual 2021. Mancomunidad del Añarbe.

**7. JARDUERA PROGRAMA:  
KUTSADURAREN PREBENTZIOA ETA  
GUTXIPENA:**

**PROGRAMA DE ACTUACION 7:  
PREVENCIÓN Y MITIGACIÓN DE LA  
CONTAMINACIÓN:**

**Zarata eta bibrazioak:**

**Ruidos y vibraciones:**

49. EKINTZA:

ACCION 49:

Errenteriako Babes Akustiko Bereziko Eremuen (BABE) zonakako planak onartzea.

Aprobación de planes zonales de las Zonas de Protección Acústica Especial (ZPAE) de Errenteria.

50. EKINTZA:

ACCION 50:

Oliber auzoko zarataren eraginaren azterketa.

Estudio de la afección del ruido en el barrio de Olibet.

**Lurzoruaren kutsaduraren prebentzioa:**

**Prevención de la contaminación del suelo:**

51. EKINTZA:

ACCION 51:

Errenteriako Barandiaran Parkeko Hondeaketa Plana idazteko alde zurreko zundaketak egitea.

Realización de sondeos previos para la redacción del Plan de Excavación del Parque Barandiaran de Errenteria.

52. EKINTZA:

ACCION 52:

Errenteriako Barandiaran Parkeko Hondeaketa Plana idaztea.

Redacción del Plan de Excavación del Parque Barandiaran de Errenteria.

53. EKINTZA:

ACCION 53:

Errenteriako Pontika auzoko GECOTOR kokaleku kutsatuan lurrazpiko fuel-olio biltegi bat kentzeko eta zerbitzutik kanpo uzteko lanak.

Trabajos de puesta fuera de servicio y de eliminación de un depósito enterrado de fuel-oil en el emplazamiento contaminado de GECOTOR, en el barrio de Pontika de





Errenteria.

54. EKINTZA:

Pontikako Jose Maria Barandiaran Parkeko urbanizazio-lanak eta ekipamendua gauzatzeko proiektua idaztea. Hirigintza Saila.

ACCION 54:

Redacción del proyecto de ejecución de obras de urbanización y del equipamiento del Parque de Jose Maria Barandiaran en Pontika. Departamento de Urbanismo.

**Kutsadura elektromagnetikoa:**

**Contaminación electromagnética:**

55. EKINTZA:

Isurketa elektromagnetikoak neurtzeko kanpaina egitea Errenteriako hirigunean. Eguzki erakunde ekologista eta antinuklearrak egina, Udalak diruz lagunduta.

ACCION 55:

Realización de campaña de medición sobre emisiones electromagnéticas en centro urbano de Errenteria. Organización ecologista y antinuclear Eguzki, subvencionado por el Ayuntamiento.

**8. JARDUERA PROGRAMA: HONDAKINEN PREBENTZIOA ETA KUDEAKETA:**

**PROGRAMA DE ACTUACIÓN 8: PREVENCIÓN Y GESTIÓN DE RESIDUOS:**

56. EKINTZA:

Zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan eta haurtzaindegietan pardelen eta hondakin sanitarioen sorrerari buruzko azterketa kontratatzea eta burutzea.

ACCION ACCION 56:

Contratación y realización de estudio sobre la generación de pañales y residuos sanitarios en residencias de mayores, centros de día y guarderías.

57. EKINTZA:

Herriko biohondakinen gaikako bilketaren inguruko sentsibilizaziorako udal kanpaina.

ACCION ACCION 57:

Campaña municipal de sensibilización en materia de recogida selectiva de biorresiduos del municipio.

58. EKINTZA:

HHSetako errefusaren zatikiko edukiontzi grisaren ezaugarritze bat egitea. GHK erakundeak egina.

ACCION ACCION 58:

Realización de una caracterización del contenedor gris de la fracción rechazo de RSU, por GHK.

59. EKINTZA:

Etxeko hondakin toxiko eta arriskutsuak gaika biltzeko lau panel jarri dira kalean: Beraun, Iztietia, Olibet eta Erdialdea.

ACCION 59:

Instalación de cuatro paneles para la recogida selectiva de residuos tóxicos y peligrosos del hogar: Beraun, Iztietia, Olibet y Centro.

60. EKINTZA:

Errenteriako auzoko eta etxeko konpostari jarraipen teknikoaren kontratazioaren garapena eta kontratazioa: sei auzo konpostaguneetan (Fanderia, Agustinak,

ACCION 60:

Contratación y desarrollo del contrato de seguimiento técnico de los Programas municipales de Compostaje Doméstico y Comunitario de Errenteria en seis áreas de



Alaberga eta Gaztaño (2), eta Uztargi Haurreskola).

compostaje: barrios (Fanderia, Agustinas, Alaberga y Gaztaño (2), y Escuela Infantil Uztargi.

61. EKINTZA:

Gaztaino-1 eta Markolako auzo-konpostajeko eremuetan lau konpostontzi berritzea.

ACCION 61:

Renovación de cuatro composteras en las áreas de compostaje comunitario de Gaztaino-1 y Markola.

62. EKINTZA:

Lurzoru urbaniza ezinean dauden kontrolatu gabeko hondakin solido inerteak eeta zabalduetako hondakinak ezabatzeko lanak, Hiri-Mantenimenduko Sailaren laguntzarekin batera.

ACCION 62:

Trabajos de eliminación de focos incontrolados de residuos sólidos inertes y residuos difusos en suelo no urbanizable, en coordinación con el Departamento de Mantenimiento Urbano.

63. EKINTZA:

Lur-betelanak egiteko obren ingurumeneko jarraipen-lanak: Aparola, Egiluze, eta Frantzesillagaberri-Josemarienea.

ACCION 63:

Labores de seguimiento y control de obras de rellenos de tierras: Perurena, Egiluze y Frantzesillagaberri-Josemarienea.

**9. JARDUERA-PROGRAMA: LANDA GARAPENA:**

**PROGRAMA DE ACTUACIÓN 9: DESARROLLO RURAL:**

**Landaguneko hirigintza diziplina (Lizentziak):**

**Disciplina urbanística (Licencias) en SNU:**

64. EKINTZA:

Informazioa, kontrola, jarraipena eta neurri zuzentzaileak ezartzea sailkatutako eta aurre-komunikazioko jardueren eta obren Udal Lizentzian nekazaritza- eta abere-ustiapenetan, jarduera tertziarioetan eta baserrietan: Larreaundi, Alperkabi, Arroskenea, Bidegain, Listorreta zalditegia eta Sagardiburu.

ACCION 64:

